

## **Diru sarrerak:**

Gure enpresan bi prezio motak erabiliko ditugu. Gauza batzuetarako prezio finkoak erabiliko dira eta beste gauza batzuetarako prezio dinamikoak. Horrez gain, diru sarrera desberdinak edukiko ditugu eta batzuk ordainketa bakarrekoak izango dira eta beste batzuk ordainketa errepikakorrak.

Lehenik eta behin, prezio finkoa materialaren alokairurako eta hilabeteko kuota izango da. Materiala alokatzeko, zerrendako prezioa erabiliko dugu, material bakoitzari prezio finko eta desberdin bat jarriko diogulako eta gainera ordainketa bakarrekoa izango da. Alokatzeko dezunean ordaindu beharko da bakarrik. Horrez gain, hilabeteko kuota ordaintzeko, egingo duguna da kuotari prezio baxu bat jarri eta hori ordaindu beharko da hilabetero, beraz prezio finkoa edukiko du, baina ordainketa errepikakorra izango da.

Jarraitzeko, prezio dinamikoak futbol zelaien alokairua izango da. Futbol zelai bakoitzak prezio ezberdin bat izango du alokatzeko orduan, kalitateari dagokionez eta partidua jolastuko dutenek aukeratu ahal izango dute ze zelaietan jolastu nahi duten. Gainera, zelaiaren alokairua denek artean banatuko da, hau da, zelaiak 40 euro balio baditu eta jolastera 22 pertsona joaten badira denek berdina ordaindu beharko dute.

Azkenik, bezeroek hilabeteko kuotarengatik 3 euro ordaindu beharko dituzte hilabetero eta gero materialaren alokairurako materiala ahalko da bakarka ordaindu, adibidez, soilik baloi bat behar badute baloi bat alokatu edo bestela loteka, hau da,

baloiak, petoak, konoak, etab. behar badituzte lote ezberdinak egongo dira gauza guzti horiek alokatzeko.

### Points scored

